

Irizpideen araberako balorazioa eta galderak lehenestea.

Gizarte-trantsizioa

AURKIBIDEA

1. Sarrera
2. Balorazioaren irakurketa orokorra, irizpideetan oinarrituta.
3. Moldatutako galderen zerrenda.
4. Galdera finalisten zerrenda, emandako lehentasunaren arabera.
5. Galdera guztien balorazioa, hobetzeko proposamenak egitea eta galderen lehenestea.

Sarrera

Ongi etorri! Gizarte-trantsizioari buruzko galdera-dinamikaren lehen zatiko emaitzen txostena aurkezten dizugu. Guztira 10 pertsona izan zarete txosten honetan aurkezten ditugun emaitzak zuen ekarpenekin elikatu dituzuenak. Eskerrik asko ariketari eskainitako denboragatik, zuen dedikazioa funtsezkoa izan baita honaino iristeko.

Dokumentu honek bi helburu ditu:

- **Partehartzaileei itzultzea inkesten lehen txandako emaitzak.** Gi2030 prozesuaren hurrengo faseetan landu behar dituzuen galderak ebaluatzen, fintzen eta hautatzen eman duzuen denbora eta jarritako interesa aitortzeko modu bat da.
- **Gi2030 prozesuak sortzen dituen edukiak jasotzea, modu zehatzean.** Hurrengo faseetan landuko diren galderak aukeratzea prozesu garrantzitsua da eta, horregatik, berebiziko garrantzia du egindako hautaketa-ariketari buruzko informazio kuantitatibo zein kualitatiboa ahalik eta zehatzen jasotzea.


Jarraian, emaitzen laburpen orokorra aurkeztuko dugu. Ondorengo ataletan, aztertutako **15 galderen** balorazioak laburtuko ditugu eta banan-banan jaso dituzten hobekuntza-proposamenetan sakonduko dugu. Azkenik, galdera-hautatuen aukeraketarako xehetasunak ere emango ditugu.

Balorazioaren irakurketa orokorra, irizpideetan oinarrituta.

Aurkeztutako galderen xehetasunetan sartu aurretik, eta zein nolako argudioak jaso dituzten hautatuak izateko, labur-labur azalduko dugu gizarte-trantsizioari buruzko **15 galderek** jaso zuten balorazio orokorra. Gogoan izan ebaluazio-ariketa hau talde eragileak proposatutako 6

irizpideen arabera egin dela, eta parte-hartzaileek baliozkatu dutela. Horrek joera batzuk markatuko ditu, emaitzak aurkezten goazen heinean azalduko ditugunak.

1.Grafikoa. Galdera guztien batez besteko balorazioa, betetzen dituzten irizpideetan oinarrituta, 1= Ezer ez, eta 5= Asko



Batez besteko puntuazio handiena ‘**aplikagarritasun**’ irizpideak jaso du, proposatutako galderak **Gipuzkoako lurraldean aplikagarri** direla nabarmentzen du (M = 4.6). Emaitza hori garrantzitsua da lantzen ditugun galderak Gipuzkoako testuinguruan lurreratzeko duten gaitasuna erakusten duelako eta, nabarmenki, Gipuzkoan eragina izan dezaketen gaien alde egiten dela. Aztertutako **gaiak premiazkoak direlako** pertzepzioa

ere handia da (M = 4.1). Kontrara, Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen eskumenen ikuspegitik, emaitza apalagoa da, eta horrek zerikusia du galderak duten inpaktuarekin, lantzen diren arazoetan esku hartzeko zailtasunak daudelako. Alde horretatik, parte-hartzaileek uste duzue galderen auziak proposamen bihurtzeko **foru administrazioaren irismen eta gaitasuna** “gutxi” betetzen dela (M = 2.6). Horrekin lotuta, eskumen-esparrua mugatzat hartzea behin eta berriz aipatu da parte-hartzaileek galderei egindako hobekuntza-oharretan edo -proposamenetan. Ohar hori garrantzitsua da, galdera horiek akuilu izan nahi badute politika publikoak zehaztu eta aldaketak motibatuzko. Galdera asko osasunari lotutakoak izateak ere azaldu lezake joera hori, osasuna Osakidetzaren eskumena delako, Eusko Jaurlaritzarena, eta ez Gipuzkoako Foru Aldundiarena. Bestetik, gaitasunei buruzko irizpidean puntuazioek desbideratze tipiko handiek jasan dituzten eta horrek adierazten du erantzunetan aldakortasun handia izan dela. Hori ere garrantzitsua da, galderak eskatzen duen eskumena zein den edo zein administrazioari dagokion,

partehartzaileen artean akordio txikia dagoela iradokitzen baitu. Justizia sozialari erreferentzia egiten dien dimentsioei erreparatzen badiegu, balioak apur bat jaisten dira, 3.5 puntutik gora mantentzen diren arren. Zehazki, landutako galderak **gizarte-desberdintasunekin** (M = 3.9) oso maila hurbilean lotzen direla, eta gizarte-desberdintasunak eusten dituzten zenbait gairi erantzuten dietela aitortzen da. Aldiz, galderak **demokraziaren hobekuntzarekin** harremanik duten, balorazioa zertxobait txikiagoa da (M = 3.5). Alde horretatik, parte-hartzaile batek behin


eta berriz adierazi du galderetan “desberdintasuna” eta “demokrazia” kontzeptuak txertatu beharko liratekeela. Errepikapen horrek agerian uzten du gizarte-trantsiziora bideratutako galderen formulazioak kezka sortzen duela Gi2030 prozesuaren hurrengo faseak gidatuko dituzten galderak ebaluatzeko orduan. Azkenik, **galderen formulazioa** modu positiboan baloratu duzue: prozesurako egokitasunari buruzko irizpideak “nahiko”-tik gertu dagoen puntuazioa lortu du (M = 3.9).



Moldatutako galderen zerrenda.

Landu diren galderek hobekuntza-proposamen ugari jaso dituzte. Horien artean **bost galderari egindako moldaketak onartu ditugu.**







Jarraian zehazten ditugu:

1.Gaia: Osasun sistemen kudeaketa.

- **1. Galdera.** Nola lor dezakegu gorputz-osasun fisikoaz haratago doan osasun-sistemen ulerkera?  **Nola lor dezakegu gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun-sisteman?**

- **3. Galdera.** Zer mekanismo behar dira farmazia-industriak osasun-erakundeak hainbeste baldintzatu ez ditzaten?   Zer mekanismo behar dira farmazia-industriak eta zerbitzu soziosanitarioen hornitzaile diren enpresa-taldeek osasun-erakundeak hainbeste baldintzatu ez ditzaten?


2. Gaia. Gizarte ongizatea eta osasun mentala.

- **1. Galdera.** Nola sortu espazio seguruak, arazo emozionalak, zaurgarritasuna eta ondoeza partekatzeko?   Espazio seguruak edo erreferentzia espezifikodunak sortzeaz gain, nola egin aurrera komunikazio kultura bati non pertsonak arazo emozionalak, zaurgarritasuna eta ondoeza askatasunez partekatzeko moduan sentitzen diren (desbalorizatuak, estigmatizatuak, epaituak edo diskriminatuak izan gabe)?
- **6. Galdera.** Nola desmitifikatu psikologia arloa, osasun mentalaren inguruko ezagutza sasi-ezagutza kaltegarrian ez bukatzeko?   Nola bideratu psikologia arloa osasun mentaleko balizko imajinario kaltegarriak saihesteko?
- **7. Galdera.** Zer da "konziliazioa"? Aitzaki hutsa bihurtu da?   Zer da eta nola ulertzen dugu "konziliazioa"?


Galdera finalisten zerrenda, emandako lehentasunaren arabera.

Azkenik, **sei galdera** hauek izan dira **hautatuak**:

1. Gaia. Osasun sistemen kudeaketa.

- **1. Galdera.** Nola lor dezakegu gorputz-osasun fisikoaz haratago doan osasun-sistemen ulerkera?  **Nola lor dezakegu gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun-sisteman?**
- **2. Galdera.** Nola murriztu liteke gizartearen gehiegizko medikalizazioa?
- **6. Galdera.** Osakidetza berriz ere aitzindaria izan dadin, zer egin liteke?

2. Gaia. Gizarte ongizatea eta osasun mentala.

- **1. Galdera.** Nola sortu espazio seguruak, arazo emozionalak, zaurgarritasuna eta ondoeza partekatzeko?  **Espazio seguruak edo erreferentzialak sortzeaz gain, nola egin aurrera komunikazio kultura batetan non pertsonak arazo emozionalak, zaurgarritasuna eta ondoeza askatasunez partekatzeko moduan sentitzen diren (desbalorizatuak, estigmatizatuak, epaituak edo diskriminatuak izan gabe)?**
- **2. Galdera.** Nork arduratu beharko luke osasun mentalaz?
- **5. Galdera.** Zeintzuk dira gazteen osasun mentala baldintzatzen duten faktoreak?


Galdera guztien balorazioa, hobekuntza proposamenak eta galderak lehenestea.

Jarraian, osasun sistemen inguruko galderak jasotako balorazioa aurkezten dugu, emandako irizpideen araberakoa, eta baita partehartzaileek egin dizkieten moldaketa eta hobekuntza proposamenak ere.

1. Gaia: Osasun-sistemen kudeaketa.

1. Galdera. "Nola lor dezakegu gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun-sisteman?"

Balorazioa.



Oro har, parte-hartzaileek baloratu duzue gorputz-fisikoa gainditzen duen osasun-ikuskerari buruzko galderak "nahikoa" asebetetzen dituela emandako irizpide gehienak. Zehazki, uste duzue galderak maila altu batean erantzuten diela desberdintasun sozialekin lotutako auziei ($M = 4.3$; $DT = 0.82$), zein demokrazia hobekuntzarekin lotutakoei ($M = 4$; $DT = 1.70$). Era berean, uste duzue galdera Gipuzkoan aplikatu daitekeela ($M = 4.2$; $DT = 1.64$), zuzen formulatuta dagoela ($M = 4$; $DT = 1.25$) eta premiazko problematika bati heltzen diola ($M = 3.9$; $DT = 1.60$). Aipatzekoa da, batez bestekoaren gainera baloratuta ere, Foru Aldundiak gai horretan eskumenak ote dituen irizpidea izan zela puntuaziorik txikiena jaso zuena ($M = 3.2$; $DT = 1.81$)

Hobekuntza proposamenak.

Galderaren formulazioa, batez beste, ondo baloratu den arren, jasotako lau hobekuntza-proposamenek puntu horren gaineko arreta eskatzen dute. Parte-hartzaile batzuek adierazi duzue galdera anbigua eta abstraktua izan daitekeela, batez ere "osasun-sistemak" eta "ulerkera"

adigaiei dagokionez. Alternatiba gisa, parte-hartzaile batzuek azalpen-atala gehitzea iradoki duzue, argitasuna emateko eta, esaterako, osasun-sistemak (pluralean) osasun-sistemaren ordeztatzeko. Proposamenaren lehen zatia dagokionez, beste ezer baino lehen osasunari buruz hausnartzea iradokitzen da, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 1964an definitu zuen moduan, hau da, erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera gisa, eta hortik abiatzea politika publikoen esparruan duen garapen-gaitasuna.

“Sería interesante una reflexión previa de porque en el desarrollo de las políticas públicas de salud se ha primado que la parte sanitaria se provea a través del funcionamiento público de la CAV (Osakidetza), la parte social se provea por subcontratas (Diputación y Aytos.) y la parte psicológica no se provea (que el que pueda se lo pague)” (Gizona, gizarte langintza esparrua).

Partehartzaile berak proposatzen du “osasun sistemak” (pluralean) aldatzeko, “osasun sistema”-gatik. Bere ustez, aldaketa horrek argitasuna eta zehaztasuna emango lizkioke galderari:

*“...Cuando la pregunta se refiere a los sistemas sanitarios, supongo se refiere a “el sistema sanitario” público, vamos, Osakidetza, y no al sistema sociosanitario (Diputaciones). Sería mejor lo siguiente: **¿Cómo podemos lograr una concepción en nuestro sistema sanitario que vaya más allá de la salud física corporal?**” (Gizona, gizarte langintza esparrua)*


Galderak jaso dituen balorazioei erreparatuz gero, puntuaziorik txikiena jaso du Foru Aldundiak bere eskumenen bidez gai horretan eragiteko duen gaitasunari buruzko irizpideak. Ikusten dugu ideia hori bat datorrela osasun-sistemak osasun-sistemaren ordeztatzeko proposamenarekin. Osasun-sistema singularrean aipatuz, galderak zuzenean aipatzen ditu Osakidetzaren zeregin eta funtzioak, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direnak, eta ez aldundiarenak. Ñabardura hori txertatzen zaionean, EAeko osasun-sistema publikoak osasunaren ikuspegi holista bere lanean integratzeko beharrari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen du galderak.

Azalpen horiek emanda, **egindako hobekuntza-proposamena onartzen dugu**, eta galdera honela formulatuta gelditzen da:

Nola lor dezakegu gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun-sisteman?

2. Galdera. "Nola murriztu liteke gizartearen gehiegizko medikalizazioa?"

Balorazioa.



erakusten dute. Lurraldeko aplikagarritasunari dagokionez, parte-hartzaile guztiok puntuaziorik altuenarekin baloratu duzue ($M = 5$; $DT = 1.40$). Beste irizpideetako puntuazioak zertxobait baxuagoak izan arren, auziaren urgentzia ($M = 4.1$; $DT = 2.01$), gizarte-desberdintasunekiko lotura ($M = 3.8$; $DT = 0.00$), edo prozesurako formulazio eta egokitasun egokia ($M = 4.3$; $DT = 1.96$), irizpide horiek ere modu altuan baloratzen jarraitu dute. Kontrara, demokrazia hobetzeko gaitasunari edota Aldundiaren eskumen-irismenari dagokionez, bi irizpideek puntuazio txikiagoa lortu dute, batez bestekoaren inguruan biak ($M = 2,6$; $DT = 0.99$; $DT = 0.95$)


Gizartearen gehiegizko medikalizazioa murrizteko moduari dagokionez, irizpideen balorazioek heterogeneotasun handiagoa

Hobekuntza proposamenak.

Galdera honek hobetzeko bi proposamen jaso ditu. Lehenengoak “desberdintasuna” eta “demokrazia” galderan berariaz txertatzea proposatzen du. Kasu honetan, balorazioa bat dator demokraziaren hobekuntzari buruz galdetzen duen irizpideak jaso duen balorazio eskasarekin. Hobetzeko bigarren iradokizunak zehazten du gizartea ez dela medikalizatuta dagoena, baizik eta bizi garen pertsonak garena, gertatzen zaigun ia guztiaren ulermen eta abordatze medikoak baldintzatuta gaudelako. Ideia hori osasun-sisteman nagusi den osasunaren ikuskerari eta alternatiben beharrari buruzko **1. galderarekin** lotuta dagoenez, ñabardu edo ideia hori dagoeneko beste galdera batean txertatuta dagoela irizten da.

3. Galdera. “Zer mekanismo behar dira farmazia-industriak eta zerbitzu soziosanitarioen hornitzaile diren enpresa-taldeek osasun-erakundeak hainbeste baldintzatu ez ditzaten?”

Balorazioa.



Farmazia-industriak osasun-erakundeetan duen eragina murrizteko beharko liratekeen mekanismoei buruzko galderak, batez beste, gehien egiten du bat aplikagarritasunarekin ($M = 4.8$; $DT = 1.81$), ondoren, auziaren premiarekin ($M = 4.2$; $DT = 1.49$) eta formulazioaren egokitasuna eta demokrazia hobetzeko gaitasuna ($M = 4$; $DT = 0.42$). Batez besteko horiek kontuan hartuta, galdetutakoek uste duzue galderak irizpide horietako bakoitza “nahiko” betetzen duela. Neurri txikiagoan bada ere, galderak gizarte-desberdintasunak jasotzen omen ditu ($M = 3.8$; $DT = 1.94$). Berriz ere, galderak jorratzen duen auziak Foru Aldundiaren eskumen-esparrua gainditzen duenez, irizpide hori da balorazio txikiena lortzen duena ($M = 2$; $DT = 0.92$). Hobekuntza proposamenek gai horretan sakontzen dute, hain zuzen ere

Hobekuntza proposamenak.


Galdera honek jaso dituen bi hobekuntza-proposamenetan ageri da eskumenen arazoa. Arlo akademikoko parte-hartzaile batek aitortu zuen galdera “multinazionalen” eskalan kokatzen dela, eta eskala horrek asko zailtzen duela auziari heltzea. Inkestatu bat gizarte-eremutik dator, eta bat dator ideia horrekin. Zehazki, multinazionalen auzia zabaltzea proposatzen du, farmazia-industriaz gain “zaintzak hornitzen dituzten enpresak” ere sartzeko, horrela Foru Aldundiak dituen eskumenak galderan ere jaso daitezten.

Azalpen horiek emanda, **egindako hobekuntza-proposamena onartzen dugu**, eta galdera honela formulatuta gelditzen da:

Zer mekanismo behar dira farmazia-industriak eta zerbitzu soziosanitarioen hornitzaile diren enpresa-taldeek osasun-erakundeak hainbeste baldintzatu ez ditzaten?

4. Galdera. “Nola ziurta genitzake ondo formatutako profesionalak osasun-mentalaren alorrean?”

Balorazioa.



Ondo prestatutako osasun-mentaleko profesionalak nola ziurtatu ditzakegun galderak puntuazio gorabeheratsuak lortu ditu irizpide bakoitzean. Horrela, oso neurri altuan baloratu da lurraldean aplikatzeko irizpidea ($M = 4.9$; $DT = 0.32$) eta hura egiteko premia ($M = 4.6$; $DT = 0.70$). Gainera, eta maila altu batean, parte-hartzaileek pentsatu duzue galdera zuzen formulatuta dagoela ($M = 4.4$; $DT = 0.70$), eta gizarte-desberdintasunei erantzuten diela ($M = 4$; $DT = 1.25$). Neurri txikiagoan, galderak demokrazia maila ertain-altuan hobetzen laguntzen duela baloratu duzue ($M = 3$; $DT = 1.76$). Amaitzeko, batez bestekotik beherako puntuazioekin, Foru Aldundiak arlo horretan dituen eskumenak urriak direla balioetsi da, nahiz eta desbideratze tipikoaren balioek erakusten duten


balorazio horrek ez duela adostasunik lortu parte-hartzaile guztiengan (M = 2.1; DT = 2.3).

Hobekuntza proposamenak.

Galdera honek hobetzeko proposamen bakarra jaso du: "desberdintasuna" eta "demokrazia" kontzeptuak sartzea galderan. Hala ere, aldeztatik baloratu duzue galderaren formulazio-egokitasuna, neurri altu batean (M = 4.4; DT = 0.7), ikerketa-taldeak galdera dagoen bezala mantentzea erabaki du, gehiengoaren balorazioari jarraituz.

5. Galdera. "Nola egin aurrera heriotza duinaren aintzatespenean, bizitzaren ikusmolde hutsaletan erori gabe?"

Balorazioa.



Galdera horren inguruko balorazioek aurreko galderaren antzeko banaketa izan zuten, baina kasu guztietan batez bestekoaren azpitik zeuden puntuazioak. Ondoen baloratutako irizpideek, maila altuan, zerikusia dute galdera lurraldean aplikatzeko aukerarekin (M = 4.0; DT = 1.56); ondoren, puntuazio ertain-altuekin, gaiaren urgentziarekin (M = 3.6; DT = 1.65), formulazioarekin (M = 3.4; DT = 1.51), eta gizarte-desberdintasunekiko loturarekin (M = 3.1; DT = 1.85). Era berean, eta neurri txikiagoan bada ere, galderak demokraziaren hobekuntzarekin lotutako auziak barne

hartzen dituela aintzat hartzeak puntuazio erdia inguru lortu zuen ($M = 2.7$; $DT = 1.77$). Orain arte azaldutako emaitzekin bat etorri, Foru Aldundiak gai horren inguruan dituen eskumenei

buruzko balorazioak batez bestekotik beherako puntuazioa lortu du ($M = 2$; $DT = 2.16$), eta ohar horrek eskumen-gaia galderaren ahuleziatzen jotzen du berriro.

Hobekuntza proposamenak.


Oro har, parte-hartzaileek adostasuna adierazi zenuten hiru hobekuntza-proposamenetan, "hutsala", "aintzatespena" edo "heriotza duina" terminoei dagokion anbigutasuna konpondu beharagatik. Horrek zerikusia du galderaren formulazioari emandako puntuazioarekin: balorazio ertain-altua jaso arren, egokitasunaren eta argitasunaren ikuspuntutik gutxien baloratu den galdera da orain arte (galderaren formulazioa irizpideari dagokionez, aurreko balorazioak puntuazio altu eta oso altu artekoak jaso dira). Hala adierazten da honako iruzkin honetan:

"No sé si está claro que quiere decir "el reconocimiento": ¿que existe una demanda o que la demanda es legítima? Ni tampoco entiendo muy bien qué se quiere decir con "una concepción banal de la vida" (Emakumea, unibertsitate alorrekoa).

Parte-hartzaileek adierazi duten anbigutasun-maila handia logikoa da, galderak ia saihestezina den abstrakzio-maila duten gai existentzialei heltzen baitie. Izan ere, zaila da galdera batean zehaztea bizitzaren onarpenaren edo kontzepzioaren esanahia, besteak beste. Ideia konplexu horiei buruz, a priori, ez dago adostasunik. Hala ere, ez da kontzeptu horien esanahia zehaztuko lukeen ekarpen zehatzik egin, eta, beraz, ikerketa-taldeak galderan aldaketarik ez egitea erabaki du.

6. Galdera. "Osakidetza berriz ere aitzindaria izan dadin, zer egin liteke?"

Balorazioa.



Eskumenen irizpidea alde batera uzten badugu, Euskal Osasun Zerbitzua berriz ere aitzindari izateko egin beharreko ekintzei buruzko galderak irizpideekiko lerrokatze altua erakusten du. Parte-hartzaileek adierazi duzue galderak "nahiko" betetzen duela premia-irizpidea ($M = 4.6$; $DT = 0.84$)

eta Gipuzkoako errealitatean lurreratzeko gaitasuna ($M = 4.6$; $DT = 0.97$). Neurri txikiagoan bada ere, desberdintasun sozialekiko ($M = 4.1$; $DT = 1.2$) eta demokraziaren hobekuntzarekiko ($M = 4$; $DT = 1.41$) "aski" sentsibiltate erakusten du galderak. Bertute horiek gorabehera, berriz ere eskumen-arazoa da oztopoa: Foru Aldundiak gai honetan esku hartzeko duen gaitasunak oso balorazio txikia lortu du batez beste ($M = 1.8$; $DT = 1.8$). Hala ere, garrantzitsua da adieraztea emaitza horrek dakarren desbideratze tipiko handiak erakusten duela erantzunaren aldakortasuna oso handia dela, eta horrek pentsarazten digu inkestatutako pertsonak ez duzuela adostasun handirik Foru Aldundiak duen gaitasunaren inguruan Osakidetzaren erronketan eragiteko.

Hobekuntza proposamenak.


Galderak jaso dituen hobekuntza-proposamenetan, bi parte-hartzailek emaitzen azalpenean atera diren ideiak azpimarratu dituzte: eskumenen gaia eta galderetan “desberdintasun” eta “demokrazia” kontzeptuak sartzeko beharra. Iradokizun horiek maiz egiten direnez, Gi2030 prozesuaren hurrengo faseak gidatuko dituzten galderak ebaluatzeko orduan, garrantzi berezia ematen diezuela bai foru-administrazioaren gaitasun eta eskumenei, bai eta gizarte-justiziara bideratutako lankidetzazko gobernantzaren kontzeptu nodalari. Galderari egin zaion hirugarren hobekuntza iradokizuna honako hau da: “aitzindari” gisa zer ulertzen den modulatzeari.

“El supuesto de que ‘fue pionera’ es aceptable aunque suene un tanto chauvinista, pero [Osakidetza] fue creada con intención de atender a los y las ciudadanas en sus necesidades sanitarias desde que nacemos hasta que morimos, con buenas prácticas y de manera igualitaria hasta donde permitiesen unos recursos sanitarios limitados. No parece que sea lo que hace ahora.” (Emakumea, unibertsitate alorrekoa)

1. Gaia: Osasun-sistemen kudeaketa. Galderen lehenestea

Orain arte, banan-banan berrikusi dugu osasun-sistemen kudeaketari buruzko hausnarketara bideratutako blokea osatzen duten 6 galderak jaso duten ebaluazioa. Irizpide jakinen bidez egindako ariketa horrekin batera, inkestan parte hartzen duzuenoi hurrengo faserako galderak ranking batean ordenatzeko eskatzen dizuegu. Atal honetan, galderak nola ordenatu diren erakutsiko dugu. Hasteko, emaitzak laburbilduko ditugu, eta, ondoren, zuen aukera justifikatzeko erabili dituzuen argudioak aztertuko ditugu.


Galderei esleitutako ordenaren arabera, honako hauek hautatu dira:

- **1. Galdera.** Nola lor dezakegu gorputz-osasun fisikoaz haratago doan osasun-sistemen ulerkera?  **Nola lor dezakegu gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun-sisteman?**
- **2. Galdera.** Nola murriztu liteke gizartearen gehiegizko medikalizazioa?

- **6. Galdera. Osakidetza berriz ere aitzindaria izan dadin, zer egin liteke?**

Jarraian datorren grafikak erakusten du galdera guztiei esleitutako batz besteko ordena.

1. Gaia: Osasun-sistemen kudeaketa. Galderen lehenestea



Legenda. 1. Galdera. Nola lor dezakegu gorputz-osasun fisikoaz haratago doan osasun sistemen ulerkera? Nola lor dezakegu gure gorputzaren osasun fisikoaz haratago doan ulerkera gure osasun sisteman? | **2. Galdera.** Nola murriztu liteke gizartearen gehiegizko medikalizazioa? | **3. Galdera.** Zer mekanismo behar dira farmazia-indutriak osasun-erakundeak hainbeste ez baldintzatzeko? Zer mekanismo behar dira farmazia-indutriak eta zerbitzu soziosanitarioen hornitzaile diren enpresa-taldeek osasun-erakundeak hainbeste baldintzatu ez ditzaten? | **4. Galdera.** Nola ziurta genitzake ondo formatutako profesionalak osasun-mentalaren alorrean? | **5. Galdera.** Nola egin aurrera heriotza duinaren aintzatespenean, bizitzaren kontzepzio hutsaletan erori gabe? | **6. Galdera.** Osakidetza berriz aitzindari izan dadin, zer egin liteke?

Arrazoiketa.

Emaitzak ikusita, hurrengo fasera igarotzeko galdera hautatuena, partehartzaileen artean interes gehien piztu duena, gorputz-fisikoaz haratago doan osasun-ulerkerarako trantsizioari buruzko galdera izan da (1. galdera): 10 inkestatik 6k lehenengo postuan jarri dute. Funtsezko gai bat izateak ematen dion lehentasuna azpimarratu dute argudioetan, gure ingurune sozioekonomikoaren baldintzak direla eta, datozen urteetan funtsezkoa izango dela pentsatzen baita. Ildo horretan, beste erantzun batzuek adierazten dute auzi horrek Gipuzkoako pertsonen egunerokoan eragina duela, gaia gertukoa dela, Gipuzkoako Foru Aldundiaren betebeharrerekin harremana duela eta, horrekin lotuta, erakunde publikoen jardun berritzailea ahalbidetu lezakeela.

Kasu batzuetan, galdera hau aukeratzea oso lotuta dago osasun-arazoei (mentalei) medikalizazioaren bidez aurre egiteko erronkari buruzko galderarekin (2. galdera). Gogoan izan azken hori izan dela ariketan hautatutako galderetako bat. Partehartzaile batek bi galderak aukeratu ditu, bi galderek eskatzen dutelako pertsonak erdigunean kokatzea:

“Entiendo que incorporar la salud mental (y con ella los determinantes sociales de la salud mental) en la atención a los problemas de Salud (excesivamente medicalizados) implica poner las necesidades de las personas en el centro de la agenda política” (emakumea, unibertsitate-eremua eta administrazio publikoa).

Ildo horretan, inkestatutako beste pertsona batek bi galderen arteko erlazioa ezartzen du, sintomatologia fisikoan oinarritutako osasun-ikuskerari ezin dela gaintu onartzean, *“persona eta haren inguruabarrak ondo baloratzea” (1. galdera)*, denborarik ez badago: *“sin tiempo a conocer su realidad, lo rápido es medicar” (2. galdera)*. Beste erantzun batzuek osasunaren kontzepzio fisikoa soilik gaintzeko beharra (1. galdera) medikazioa deszentratzeko eta beste balio batzuk sartzeko behararekin lotzen dute (2. galdera), aldaketa-prozesu horretan osasun-arloko profesionalen prestakuntzak hartzen duen garrantzia azpimarratuz (4. galdera). Ildo horretan, gizarte-erakunde batean lan egiten duen profesional batek argitu du osasun mentaleko profesionalak *“ondo prestatuta daudela; beste kontu bat da Osakidetza*

nola funtzionatzen duen, lanpostuak nola esleitzen dituen, mugikortasunaren auzia, oposizioak edo pizgarri ekonomikoak nola jartzen diren, psikiatrak enpresa pribatura joatea eragiten baitute". Baita ere gizarte-eremutik datorren beste profesional batek gehiegizko medikalizazioaren arazoa azpimarratzen du, prestakuntza integrala duten agenteen premiarekin lotuta: "ezinbestekoa da osasun mentaleko profesionalak izatea, pertsonekin, familia- eta komunitate-sistemekin eredu integral batetik esku hartzen dakitenak, eta osasun mentalak "sanitariotik" gutxi duela ulertzen dutenak, eta zerikusi asko duela gizarteko-, familiako-, hezkuntzako. eta, oro har, bizitzako-baldintzekin". Ikuspegi integral hori ez litzateke soilik prestakuntzara mugatuko, "paradigma biopsikosozial" baterantz aurrera egitea baitakar:

"(...) tiene que ver con todo: con promover políticas de prevención comunitaria e intervención temprana que evite el colapso actual de la atención terciaria u hospitalaria. Ello obliga a un necesario entendimiento entre las administraciones locales, forales y de la comunidad más allá de parcializar la atención en función de las competencias y jerarquías, poniéndose al servicio del ciudadano y no al revés."

(Gizona, gizarte langintza alorrekoa)

Hala ere, **2. galderaren** garrantzia azpimarratzeko emandako argudioak (nola gainditu gizartearen gehiegi medikalizatzeko joera) ez dira hemen gelditzen. Horiekin batera, beste hainbat ideia errepikatzen dira, hala nola Gipuzkoako errealitatearekiko hurbiltasuna, foru-administrazioaren eskumen eta betekizunekin duen harremana eta gaiak berrikuntzarako duen ahalmena. Beste parte-hartzaile batek "auziaren larritasuna" azpimarratu du, etorkizunean arazoak biderkatzeko aukera ikusten baitu. Beste norabide batean, inkesta erantzun duen emakume batek galdera honek deliberaziorako eskaintzen dituen aukerak eta politika zehatzetan islatzeko duen gaitasuna gehitzen ditu:

"Imagino la deliberación sobre las posibles respuestas y propuestas a esas preguntas [P6, P3, P2] y creo que podrían ser más amplias y abarcentes (incluso de las tres siguientes) y, desde mi perspectiva, son más interesantes porque podrán generar políticas concretas"

(Emakumea, unibertsitate alorrekoa).


Dinamika honen hurrengo fasera igarotzeko hautatu den azken galderak Euskal Osasun Zerbitzu aitzindari izatera itzultzeko moduari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen gaitu (**6. galdera**). Hainbat argudio errepikatzen dira galdera honen alde, hala nola Gipuzkoako biztanleen eguneroko errealitatearekiko hurbiltasuna eta berrikuntzarako eskaintzen duen gaitasuna, baita politika publiko zehatzetara itzulia izateko ematen dituen aukerak ere. Nahiz eta erantzun batzuetan onartzen den *“osasuna ez dela foru-eskumena”*, beste batzuek azpimarratu dute *“Osakidetzari buruz eztabaidatzea oso garrantzitsua dela, jasaten ari den gainbehera dela eta”*, eta horregatik *“garrantzitsua dela berrindartzea”*.

2. Gaia: Gizarte-ongizatea eta osasun mentala.

Jarraian, gizarte-ongizatearekin eta osasun mentalarekin lotutako bederatzi galderak jasotako irizpideetan oinarritutako balorazioa erakutsiko dizuegu, baita parte-hartzaileek galdera bakoitzean iradokitako galderak aldatzeko eta hobetzeko proposamenak ere.

1. Galdera. "Nola sortu espazio seguruak, arazo emozionalak, zaurgarritasuna eta ondoeza partekatzeko?"

Balorazioa.



Emaitzek adierazten dutenez, arazo emozionalak partekatzeko formulei buruzko galderak maila altuan erantzuten dio

aplikagarritasun-irizpideari ($M = 4.7$; $DT = 0.48$), gizarte-desberdintasunen kontsiderazioari ($M = 4.6$; $DT = 0.52$) eta formulazio egokiari ($M = 4.6$; $DT = 0.52$). Urgentziazko galdera denaren pertzepzioa handia izaten jarraitzen du, nahiz eta apur bat jaitsi ($M = 4.2$; $DT = 0.92$). Bestalde, inkestatutako emakumeek baloratu zuten galdera hau demokraziaren hobekuntzarekin lotuta dagoela ($M = 3.5$; $DT = 1.58$). Era berean, ikusi zen gaiak Aldundiak esku hartzeko moduko gaiak eusten dituela, nahiz eta desbideratze tipiko handia izan ($M = 3.3$; $DT = 2.31$). Berriz ere, galdera honen balorazioa, gaitasunen ikuspuntutik, guztien artean baxuena da

Hobekuntza proposamena.

